



Noaua!! albisteak

Usurbildarren urteko egun berezienaren zain jada

[2013-05-17]

XXXII. Sagardo Egunaren atarian gaude jada. Bi egun baino ez, beste urte batez, sagardoa herriko "alkate" bihurtzeko. Jai guneak izango diren tokietan prestaketa lanak abian dira jada. Gaur goizean, Mikel Laboa plazako karpa muntatzeko lanetan zebiltzan. Frontoi eta Dema plazan jarriko dituzten postuen izenen kartela heltzeko postea ere jarrita zeuden. Baita pilotalekuko oholtza ere.



Azken prestaketa lanak igande goizeko lehen orduan burutuko dituzte antolatzaileek, baita, egunotan tabernetan jarritako zerrendetan izena eman ostean, sagardoa zerbitzatzera gerturatuko diren herritarrek ere. Igande goizerako itxuraldatua esnatuko zaigu Kaxkoa.

Baserrietakoak, labeldunak, Sagardogileen Elkartekoak...

Maiatzaren 19 honetako jaialdirako egitaraua ere prest dute jada Sagardo Egunaren Lagunak taldekoak. Aurten, "1. Sagastiak Loretan" ekitaldi zikloaren baitan txertatu dute hitzordu hau. Ohi bezala, goizeko 11:30etan frontoian abiatuko da festa giroa, hasierako ekitaldiarekin. Gero pilotalekuan bertan, Dema plazan eta Askatasuna plazan kokatuko diren postuak ireki eta sagardo desberdinak dastatzeko aukera egongo da. Baserrietakoak, labeldunak, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartekoak... Bertakoak zein urrunagokoak. Sagardo Eguneko edalontzia erosi, eta jendetza bilduko da ziur, postuz postuko ibilbidera.

Ibilbide horretan gainera, edan bakarrik ez, jatekoa ere egongo da urtero moduan. Askatasuna plazan banatuko dituzten pintxoekin, sagardoa sabelean egonkortzen laguntzeko egokiera izango da.

Erromeria arratsaldean

Aurreko edizioen antzera, oraingoan ere bazkal ordura arte zabalik izango dira sagardoa banatzen arituko diren postuak. Baina Sagardo Eguna ez da hor amaituko. Goizean zehar txaranga eta trikitilariak, festa giroa alaitzen arituko dira. Eta arratsaldean baita txaranga bera ere. Frontoian berriz, erromeria izango dugu Fun&Go taldekoekin, 17:00etan hasita.

Euritakoa hartu badaezpada

Egunotan, eguraldi iragarpenei begira aritu da bat baino gehiago. Badirudi aurten ere, egun eguzkitsurik ez dugula izango igandean. Baina ezta ostiral eta larunbat honetarako espero diren euri zaparradak ere. Euskalmet-en arabera, euria espero da bai, baina ez zaparrada garrantzitsurik. Etziko mapan, inguruotarako gainera, eguzki eta lainoak baino ez dira ageri. Euri tantarik ez. Ia zer gertatzen den. Halere, giro freskoa espero da. Bero konturik ez honenbestez. Beraz, aterki edo "xira" soinean jantzi eta festara igandean!

Hau da, maiatzaren 19rako Sagardo Egunaren Lagunak taldekoek antolatu duten egitaraua:

Goizean zehar, txaranga eta trikitilariak kaleetan zehar.

10:00-14:00 Sutegiko aretoan: "Usurbilgo baserrietako dolareen argazkiak" erakusketa.

11:30 Irekiera.

Une horretatik aurrera, baserriko, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko eta Labeleko sagardoa dastatzeko aukera. Honez gain, pintxo aukera zabalda.

Arratsaldean ere txarangaz gozatzeko aukera.

17:00 Erromeria Fun&Go taldearekin.

Maiatza 2013

As	As	As	Os	Os	La	Ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Zorion Agurrak



Zorionak Malen! Maiatzak 13an bete dituzu 11 urte. Oso ondo ospatu genuen, ederra txokolatea prestatu zenutena. Muxu handi bat eta Zorionak.



noaua #UsurbilgoSagardoEguna #Sagardoa Usurbildarren urteko egun berezienaren zain jada. XXXII. Sagardo Eguna igandean. noaua.com/?atala=albiste... 2 hours ago · reply · retweet · favorite

noaua #UsurbilgoSagardoEguna #Sagardoa Usurbilgo Emai eta Herrirak antolaturiko karpa gunea igandean, Mikel Laboa plazan. noaua.com/?atala=albiste... 2 hours ago · reply · retweet · favorite

noaua #UsurbilgoSagardoEguna #Sagardoa Usurbilgo baserrietako dolareen argazki erakusketa, Sagardo Eguna arte ikusgai. noaua.com/?atala=albiste... 2 hours ago · reply · retweet · favorite

Join the conversation

Izena: Posta elektronikoa:

Mezua:



Bisitari kopurua
0159599

Copyright © 2012 . Noaua!! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil
Tf: 943 360 321 erredakzia@noaua.com

